



■ MENDIRIZ MENDI

Izenematea gaur bukatzen da, Urduñara joateko

Untzaga, Arando, Txarlazo eta Urduña... horiek pasako dituzte datorren igandean, Mendiriz Mendiko kideek. Araba, Bizkaia eta Burgoseko mugetan ibiliko dira, otsoaren euskal lurretan. Goizeko 07:30etan abiatuta, egun pasa polita. Apuntatzeko azken eguna gaur, 20:00etatik 21:00etara, elkarteko bulegoan (Iturregi). Prezioa: 11 euro bazkideek; 14 bazkide ez direnek. ||

■ OLINPIADAK

Asanblada gaur

Asteburu honetan hasiko dira Gazte Olinpiadak, eta hori prestatzeko azken bilera gaur da, 19:30etan, Gaztetxean. ||

■ GAZTE TXOKOA

Txindokiko itzala parkera irteera

Gazte Txokoak antolatuta, Larraitzen dagoen Txindokiko itzala zuhaitz parkera joango dira gaur, 11-16 urteko gazteak. Prezioa, 5 euro. ||

■ ZINEA

'8 apellidos vascos' sarrerak bihartik

Asteburu honetan errepikatu egingo dute Biterin, 8 apellidos vascos pelikularen proiektzioa. Lau egunez emango dute, ostiralean hasi, eta astelehen arte, eta guztira zortzi sesio izango dira. Lau egunetako sarrerak salgai jarriko dira ostiralean bertan, takilla orduetan (ostiralean, 21:30-22:45). ||

■ GOIZ EGUZKI

Kaleko jokoetako azken saioa, bihar

Goiz Eguzki jubilatuen etxean kaleko jokoak egiten ari dira. Azken saioa, bihar. Bote, toka, igel joko eta abar izaten dira, eta urtero ikusmin polita sortzen dute. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera ariko dira, zein baino zein, Goiz Eguzkin bertan. Saribanaketa, maiatzaren 1ean, beti bezala. ||

■ GURE ESKU DAGO ARANTZAZU RUIZ MINER ETA JESUS UZKUDUN ILLARRAMENDI

«Erabakitze eskubidearen alde egoteak ez du eskatzen denean ados egoterik»

Ekainaren 8a badator, eta Gure Esku Dago egitasmoan buru belarri ari dira, 600 hernaniar animatzeko lanean. Maiatzean bi festa jarri dituzte. Gaur, 16:30etatik aurrera, postua Plaza Berrin.

«ZENBAT eta jende ezberdin gehiago bildu, orduan eta hobe», diote Arantzazu Ruiz Miner eta Jesus Uzkudun Illarramendik. Garbi daukate, Gure Esku Dago ekimenaren barruan sartzeko baldintza bakarra dagoela bete beharra: erabakitze eskubidearen alde egotea.

Horretarako, eskaera argi bat elkarrekin egiteko, ekainaren 8an 50.000 pertsona bildu nahi dira, Durango eta Iruñea lotuko dituztenak, elkarren artean tarterik utzi gabe. Hernanitik 600 pertsona bildu nahi dira, Etxarrenera joan, eta km bat osatzeko. Dagoeneko 373 bildu dira. Ziur daude, 600 hernaniar baino gehiago animatuko direla, «badira 1.000 pertsonara iritsiko garela diotenak ere».

«Jende asko ari zaigu inguratzen»

600 lagun biltzeko asmoan, Hernanin taldea osatu da, eta astero biltzen dira, dozena bat lagun inguru, «ideologia guztietakoak». Postua jartzen dute ostegunero eta larunbatero, eta jende gero eta gehiago inguratzen zaiela diote. «Jende asko ari zaigu inguratzen. Batzuk oraindik ez dakite zer den, eta beste batzuk orain ari dira enteratzen», dio Ruizek.

Maiatzean bi festa antolatu dituzte. Maiatzaren 4an Ave Maria parkean herritar eta talde guztiak deitu dituzte parte hartzera, argazki erraldoi bat eta giza-kate bat egin nahi dira «beroketa moduan».



Arantzazu eta Jesus, herritar batek muxutruk utzitako lokalaren aurrean, Kale Nagusian.

«Ekainaren 8koa pasata, segi egin nahi da, Kataluniako bidean, eta asanblada nazionala egiteko asmoa ere badago»

Maiatzaren 16an, Galarreta frontoian erremonte jaialdi berezia prestatu dute.

Horrez gain, lokal berria daukate, herritar batek muxutruk utzia, eta aste egunez hor egoten dira, egunean bi orduz, informazioa ematen.

Metro bakoitza 5 euroan erosi liteke, baina egun horretan joan ezin duenak

ere 0 metroa deitu diotena erosi lezake, egitasmoaren alde. Porra egiten ere ari dira, zenbat hernaniar animatuko diren asmatzeko.

Helburu bakar batekin

Bi hernaniarrek diotenez, berebiziko garrantzia dauka helburu bakar batekin lan egiteak. «Oraingoz ez dago alderdi politikoen eskutan. Nik hori ikusi banu, ez nintzen taldean sartuko», dio Ruizek. Uzkudunen esanetan, alderdien eskuetan erortzeko arriskua badago, baina ez da utzi behar, «hasieran eztabaida izan zen, eredu ekonomikoari buruz kriterio batzuk markatu behar ziren

edo ez, baina oso garbi geratu zen ezetz, hortik zatiketa etorriko zela. Erabakitze eskubidearen alde egon litezke abertzaleak, federalistak eta espafolistak». Ruiz ere konforme dago, «erabakitze eskubidearen alde egoteak ez du eskatzen denean ados egoterik».

Euskal Herriko asanblea

Beste herrietan ere sumatzen omen da Hernaniko ilusioa, «animoak altu daude. Ekainaren 8koa pasata, segi egin nahi da, Kataluniako bidean. Ekainean bertan Euskal Herriko asanblada nazionala egin nahiko genuke, eta gauza gehiago ere bai». ||

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

tripontzi taberna

PINTXOKI BIZIOZ ENTSEKIDEZ BOKATA PLATER BORBINETOZ

ZATOZ
DASTATZEK!

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI
943 555 724

AKELENEA
Ereuzgia - XIX Mendeko Sugardotegian

Asteburuetan menu berezia
23€-tan

3 sarrera + 2.a aukeran arraia edo haragia
postrea aukeran ogia + urteko ardoa

Enkarguz

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - Tel. 943 333 333

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 • **Gauetz**: **Aizpuru** Latsunbeberri 11 943 336077

EGURALDIA
GAUR Laino asko izango dira, eta euri zaparradak edozein momentutan bota ditzake. Arratsaldean, euria maizago, eta ekaizak ere jo dezake. Min.10° / Max.17°
BIHAR Goizean, ipar-mendebaldeko haizea eta euria nagusi. Eguerdia aldera hobetuko du, eta egunaren bukaeran laino asko berriro. Min.8° / Max.16° (euskaime)

ARTISAUAK

Hiru egunez azoka, Plazan

Bihartik igandera, gastronomia eta eskulanak izango dira Hernanin.

ARTISAUEN lanak eta janak aukeran izango dira bihartik igandera Hernanin, Gudarien plazan. Hainbat zonaldeko gastronomia eta eskulanak

ekarriko dituzte Hernanira: Euskal Herrikoa, Castilla Leon, Castilla la Mancha, Andaluzia, Cantabria eta Extremadurakoa, hain zuzen.

Magoak, ipuin kontalaria, tatuajeak eta abar... Ostirala, larunbata eta igandean, 11:00-15:00 eta 17:00-22:00. Gudarien plazan. ||

DOBERA

Herri Urratsera joateko autobusak, Doberaren eskutik

Autobusak 09:00etan aterako dira, Atsegindegitik. Prezioa 10 euro, bazkideek 8 euro. Izen-emateak, Dobera Euskara Elkartearen.

HERRI URRATSERA joateko autobusak jarriko ditu Dobera Euskara Elkarteak. Maiatzaren 11n izango da, Senperen, Iparraldeko ikastolen aldeko festa. Autobusak goizeko 09:00etan aterako dira, Atsegindegitik. Bueltakoa, berriz, 19:00etan izango da, Senperetik.

Autobusaren prezioa 10 eurokoa izango da, eta Doberako bazkideek eskaintza berezia izango dute: 8 euro. Apuntatzeko, elkartearen egoitzara jo behar da (Larramendi, 11), maiatzaren 8a baino lehen. Gehiago jakiteko: 943 33 27 99

Beharrezkoa izango da gutxienez 20 pertsonak izena ematea. Inskripzioa, maiatzaren 8a baino lehen egin behar da.

edo dobera@dobera.com.

Eskaintza honekin, Doberarak berreskuratu nahi du denbora luzez eskainitako zerbitzu bat. Izan ere, urte askotan jarri izan ditu autobusak herritarren eskura, baina hain-

bat arrazoiengatik utzi egin zion. Eskaera kopurua ikusita, autobusak berriz jarriko dira.

Aurrera atera dadin, ordea, beharrezkoa izango da gutxienez 20 pertsonak izena ematea, autobus bat osatzeko.

Asmoa, ikastolen beste festetarako ere eskaintzea

Ez da saiakera bakarria izango Herri Urratsekoa. Ondo aterako balitz, elkartearen asmoa da, ikastolen beste festetarako ere autobusak antolatzea; Nafarroa Oinez, Araba Euskaraz eta Ibilaldirako, alegia. ||

JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

Hemen denok ezagutzen dugu elkar

Ez dugu ondo ulertzen PSEk emandako erantzuna, EAJren idatziari, baina zera azaldu nahi dugu: Euskadi dagoen lekuan badago, herriaren izaeragatik da, hemen bizi izan garenek, lan egin dugulako gure herriaren mesedetan, eta herri honen agintari izan direnak ondo aritu direlako. Eta ziur beste hainbat kontu ere badirela, positiboak zein negatiboak, gure errealitatea definitu dutenak.

Egia da EAJK gidatu duela Eusko Jaurlaritza urte askotan, batzuetan bakarrik eta besteetan lagunduta. Berdin egin du Aldundietan eta udalleteetan ere, eta mundu guztiak daki, alderdi horren gidaritzapean, Euskadi Europako

herrialde garatuenen pare zegoela, osasungintzan, hezkuntzan, gizarte zerbitzuetan eta munduan duen irudian, lau kontu aipatzeagatik. Zer ondorio atera ditzakegu Andaluzia eta Euskadiren egoera sozio-ekonomikoak alderatuta (bata historikoki sozialistek gobernatua, eta bestea, lau urte izan ezik, EAJK)? Nola utzi zuen PSEk Euskadi, Eusko Jaurlaritzan bakarka aritu ondoren, PPre babes osoarekin? Denok dakigu zein den lehenengoaren erantzuna; bigarreneko, nahikoa da datu bat: 2008ko abenduan (PSE 2009ko martxoan heldu zen agintera), Euskadik 491 milioi euroko zorra zuen; 2012an (PSEk gobernu urrian utzita), zorra 6.088 milioi eurokoa zen. Zerbait egin zuten, bai, hitz

egin eta gu zorpetu. EAJn espero dugu inertzia hori gutxitzea, hurrengo urteetan.

Hernani Institutuko obrei dagokienez, zehaztu behar dugu, oinarritzko proiektua eginda zegoela, eta obra burutzeko proiektua idatzita. Baina ez dugu horretarako partidariak aurkitu, PSEk Eusko Jaurlaritzan egindako aurrekontuetan. Hori azpimarratu nahi dut, PSEk esaten duela EAJK erretiratu duela obrentzako dirua.

EAJtik, soil-soilik, adierazi nahi dugu hernaniarregatik eta hernaniarrentzat ariko garela lanean. Eta ez bakarrik hauteskunde garaian, beste alderdi batzuek egiten duten bezala, dirudienez.

Andoni Amonarraiz Gómez
EAJKo bozeramailea

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **JESUS IRURTIA LIZASOAIN**

Atzo hil zen, 67 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Emaztea: Mallen Arrizabalaga; seme-alabak: Ander eta Ainhoa, Imanol, Olatz eta Rober; biloba: Intza; amaginarreba: Milagros Miner; anai-arrebak: José (+), Javier, Carmelo (+) eta Margarita, Atano eta Bittori, Inés eta Miguel, Patxi eta Fermina, eta Tomás; Rosa eta Pedro, Karnele eta Fernando, Mila eta Koldo, Guiller eta Izar, Ane eta Rafa; izeba, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitezela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2014ko apirilaren 24an

Helbidea: Nagusia, 63
OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da goizeko 10:00ak arte.

JESUS IRURTIA LIZASOAIN

Zure lagun arraunlariak eta Hernaniko Arraun Elkarteak gogoan zaitugu.

HERNANIKO ARRAUN ELKARTEA

Hernanin, 2014ko apirilaren 24an

† **JESUS IRURTIA LIZASOAIN**

- Goian Bego -

ANDER ETA IMANOLEN KOADRILA

Hernanin, 2014ko apirilaren 24an

KOLDO AZPIAZU GOÑI

Aintzinako lekuetan aurkituko duzu ongiertoria lagun berriengan.

PARTZA

Hernanin, 2014ko apirilaren 24an

KOLDO AZPIAZU GOÑI

Herenegun hil zen, 68 urte zituela

Orain arte bezela gero ere elkartuko gaituk

1967ko KINTOAK

Hernanin, 2014ko apirilaren 24an

IRAGARKI MERKEAK

Pixu apaina salgai. Zona lasaia. Terraza handia, 2 gela, trastelekua eta eraberritua. Deitu: 655 719 660

Pixua alokatzen da zentroan, 4 gela, bi komun, sukalde, egongela-jangela, 100m2. Erdigunean, altua eta eguzkitsua. Deitu: 699 49 22 35

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)